

Zer nahi nauk, Amore?



MANUEL RIVAS
Zer nahi nauk, Amore?
Juan Garzia Garmendia

Manuel Rivas

Itzultzailea: Garzia Garmendia, Juan

Bilduma: Literatura Unibertsala, 194

Formatua: 130 x 195 mm

Orrialdeak: 160

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2026-07-02

ISBN paperezko edizioa: 978-84-1093-098-8

Materia: Helduentzako literatura

ISBN: 978-84-1093-098-8



Salmenta prezioa

18,00 €

Zer nahi nauk, Amore? honetan, askotariko bizi-zatiak igaroko zaizkigu begien aurretik, XX. mendearen bukaerako Galizian kokatuak, landan zein hirian. Horietatik, gizarte horren aldarteak ezagutuko ditugu, eta, hein batean, mendealdeko gizarte osoaren ere bai: kulturaren eta nortasunaren galera; ondasun materialen diktadura; naturarekiko destaina; orotariko indarkeria eta axolagabekeria... Guztietan dabil tartean noski beldurra, gizakiaren funts nabarmen hori, haitzulo ilunetatik etxe orratz dirdaitsuetaraino, beti berdin, beti bera, moztarroak moztarro. Errealitatetik jasotakoak dira ipuinotako kontuak, nahiz eta arrazoimenaren, logikaren edo *normaltasunaren* ulerbide estutik at agertu zenbaitetan itxuraz.

Liburua den istoriomultzotik, badira zenbait garapen luzeagoa dutenak eta bereiz aztertzea merezi luketenak: «Tximeleten mihia», «Saxo bat lainopean» eta «Lore zuriak saguzarrentzat». Lehena da noski ezagunena, baina bereziki hartan oinarrituriko filmarengatik batik bat. Azkenak ere emango luke gaia beste film baterako (galiziar *noir* bat): narkotrafikoaren kontuek badute 1936koen paretsuko irudimen-tira bizia garai berriagootan.

BAKARDADEA - SAMURTASUNA - GALIZIA

Manuel Rivas



Kontalari, poeta, saiakeragile eta kazetaria da, eta gaur egungo galiziar literaturaren nazioarteko ahotsik gailenetariko bat. Haren obra galizieratik hizkuntza askotara itzuli da, bereziki lagundurik hala hedapen unibertsala ematen literatura galegoari. Kazetari gisa, hainbat hedabidetan aritu da, El País egunkarian batik bat. Rivasen lanik ezagunen artean daude *Un millón de vacas*, *En salvaxe compañía*, *O lapis do carpinteiro*, *Os libros arden mal* eta *Zer nahi nauk, Amore?* hau, hainbat sari jasoa. Ibilbide osoko merezimenduen aitortza gisa, Espainiako Letren Sari Nazionala jaso zuen 2024an. Juan Garzia itzultzaileak dio: «Bere obra zabalean, fintasun bereziz biltzen ditu Rivasek bere lurak bizi dituen aldeak eta aldiak. Harrigarritzko trebeziaztartzen ditu nostalgia eta aldarrikapena, eta ironia gizakoiz janzten hala kexua nola zirrara. Guztira, paisaia eta pertsonaia xeheen karruseletik bistaratuko zaigu Galizia (ari (izan)) denaren isla bizia, testuen atseginean bildurik sakoneko gogoeta».